

Vitoria-Gasteizko Udalean izapide bat jartzeko gida



Izapide bat gai bat ebazteko egin beharreko urratz bakoitza da.

Dokumentu honetan kexa, erreklamazio edo iradokizun bat egiteko eman beharreko urratsak azaltzen dira.

- Gasteizen bizi den edonok egin dezake.
- Doakoa da.

3 modu daude horretarako:



1. Telefono bidez

2 telefonotara dei egin dezakezu:

- Doakoa: 945 16 11 00
- Ordaindu beharrekoa: 010



Ordutegiak

- Urte osoan zehar:
 - Astelehenetik ostiralera: 8:00etatik 20:00etara
 - Larunbatak: de 08:00 a 20:00
- Abuztuan:
 - Astelehenetik ostiralera: 08:30etatik 18:00etara
 - Larunbatak: 09:00etatik 14:00etara
- Egun bereziak:
 - Abuztuak 4: 08:30etatik 16:00etara
 - Abuztuak 5: itxita
 - Abuztuak 15: itxita



Pertsona gorra bazara edo entzuteko desgaitasuna baduzu, bideo-interpretazio zerbitzua dago.

Non aurkitu dezaket zerbitzu hori?

Udaleko web-gunean: "010 arreta-zerbitzura bideodeia egin"

Hitz egin dezakezu:

- 010 arekin
- Herritarren arretarako bulego hauekin:
 - San Martin
 - San Antonio



2. Aurrez-aurre

- Zure auzoko Gizarte Etxean dagoen Herritarrei laguntzeko bulegoak (HLB). Auzo bakoitzak HLB bat dauka.
- San Martineko udal bulegoa



Ordutegia: astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:00etara

- San Antonioko HLB



Ordutegia: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 15:30etara
Abuztuan :9:30etatik 14:00etara

- Gazte Informaziorako Udal Bulegoa.



Ordutegia: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara
Arratsaldetan: astearte eta ostegunetan 17:00etatik 19:00etara



HLBetan dauden autotramitazio-makinetara ere joan zaitezke.



Herritarren Postontzia

3. Online

Udalaren webgunearen orri nagusian “Herritarren Postontzia” dago.

Zer urrats eman behar dira?

1. Klikatu “Herritarren Postontzia”
2. Klikatu “Postontzirako sarbidea”
3. Aukeratu interesatzen zaizun gaia
4. Inork idatzi ez duen kexa bat egin nahi bauzu
klikatu “Beste **gai** bat gehitu”
5. 3 modutan identifikatu zaitezke:
 - Hiritarraren txartela
 - BakQ ziurtagiri digitala
 - Zure datu pertsonalekin
6. Zure **gaia** idatzi

Gaia: idatzi nahi duzun kexaren edo iradokizunaren asuntoa

Irakurketa errazeko gida hau "Zure auzoa ere bada" proiektuaren esparruan garatu da. Sentsibilizazio-programa horren helburua da mundua pentsamendu kritikoz aztertzea, justizia soziala eta elkartasuna bezalako balioak barneratzea, hiriko hainbat gizarte-eragileren lankidetzeta ahalbidetzea eta aldaketarako gizarte-eragile gisa elkarrekin lan egitea.

Adurtzako Zentro Okupazionalaren eta hainbat **gizarte-eragileren** lankidetzari esker gauzatu da:



Finantzatzaileak:

